



IKASTARORAKO DEIALDIA: ARRAUN ENTRENATZAILEA, I. MAILA

Ikastaro hau Euskal Herriko Arraun Federazioak sustatu du.

Deialdi honetako entrenatzaile ikastaroa agindu honen arabera da: EDU/3186/2010 Agindua, abenduaren 7koa, “aldi iragankorra” izenekoaren prestakuntza-jarduerak arautzen dituen.

Beraz, ikastaro ofiziala da, eta Kirolaren Euskal Eskolan (Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza) bideratzen ari da ikastarorako baimena.

1. LEKUA, DATA ETA ORDUTEGIAK

Sarrera-proba, berariazko blokea eta praktikaldia federazioak berak antolatu, eman eta zuzentzen ditu; bloke komuna hezkuntza administrazioek baimendutako zentro batek eman behar du, kasu honetan Kirolenek emango du.

	ANTOLATZAILEA/E MATEN DUENA	TOKIA	DATAK	ORDUAK
SARRERA PROBA	Euskadiko Arraun Federazioa	Pasaia	Irailak 14	9:00 - 13:00
BLOKE KOMUNA	Kirolene	Pasaia	Irailaren 19tik 2014ko urtarrilaren 16ra	18:00 - 21:00
BERARIAZKO BLOKEA	Euskadiko Arraun Federazioa	Pasaia	Irailaren 19tik 2014ko urtarrilaren 16ra	18:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara
PRAKTIKALD IA	Euskadiko Arraun Federazioa	Pasaia	2013ko urtarrilaren 20tik 2015eko urtarrilaren 20ra	

2. PRESTAKUNTZAREN HELBURUA

I. mailako ikastaroak kirolaren hastapenetan aritu nahi duten teknikarientzako dira. Maila honetan gaitasun orokor hauek eskuratzen dira:

- o Kirol hastapena dinamizatzea, irakastea eta zehaztea.
- o Kirolariak antolatzea, zaintzea eta laguntzea, maila honetako jarduera, lehiaketa eta ekintzetan parte hartu behar dutenean.

*Hori guztia, erreferentziako egitarauan ezarritako segurtasun-baldintzekin eta arauekin bat.

3. EGITURA ETA EZAUGARRIAK

Ikastaroa hiru bloketan egituratuta dago: bloke komuna, berariazko blokea eta praktikaldia.

BLOKE KOMUNA		
MODULUAK / ARLOAK	AURREZ	BERTARATU

	AURREKO ORDUAK	BEHARRIK GABEKO ORDUAK
Kirol portaeraren oinarriak	10	10
Lehen laguntza	20	10
Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna	2	3
Kirol antolakuntza	2	3
GUZTIRA	34	26

BERARIAZKO BLOKEA		
MODULUAK / ARLOAK	AURREZ AURREKO ORDUAK	BERTARATU BEHARRIK GABEKO ORDUAK
Arraunketaren irakaskuntza	10	0
Arraunketaren teknika	25	0
Arraunketako doikuntzak	15	0
Segurtasuna arraunean	5	0
Araudia	10	0
GUZTIRA	65	

PRAKTIKALDIA	150 ordu
---------------------	----------

Prestakuntzaren ezaugarriak:

- o Aurrez aurreko saioak: orduen % 80. Ezinbestekoa da bertaratzea.
- o Praktikaldia

- Pasaiko arraun elkarteetan egiten da.
- Ikasleak praktikak egiten has daitezke, berariazko bloke osoa gaindituta dutenean, eta bloke komunean matrikulatuta egon edo blokea gaindituta dutenean.
- Gehienz ere 12 hilabete izango dituzte, berariazko blokeaosatzen duten arloetako notak argitaratzen direnetik kontatzen hasita.

4. PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DIREN BALDINTZAK

- o 16 urte beteta izatea.
- o Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo ondorio akademiko baliokidea duen beste titulazio bat ziurtatzea.
- * Bigarren Hezkuntzako graduatuaren (DBH) baliokideak diren tituluak:

- | |
|--|
| a) Teknikari laguntzaile titulua.
b) Teknikari titulua. |
|--|

- c) Batxilergo Balioaniztun Bateratuaren bigarren maila gainditua izatea, edo bestela, Batxilergo Balioaniztun Bateratuaren lehenengo bi mailetan gehienez ere bi ikasgai gainditu gabe izatea.
- d) Goi mailako batxiler titulua.
- e) Irakaskuntza ertainen erreformako ziklo esperimentalaren lehenengo zikloko bigarren maila gainditua izatea.
- f) 1963ko planeko hirugarren maila gainditua izatea, edo Arte Aplikatuen eta Artisan Lanbideen irakaskuntzen bigarren maila esperimentalak gainditua izatea.
- g) Ofizialia Industrialaren titulua.
- h) Aurreko ikasketa horien baliokide akademikotzat jotzen diren beste ikasketa batzuk gainditua izatea.
- k) Batxilergoaren baliokide diren titulu eta egoera guztiak (taularen eskuinaldean zehazten direnak).

*** *Eskola Graduak ez da DBHren baliokidea.***

* DBHko titulua ez badute, DBH ordezkatzeko duen heldutasun-proba gainditu ondoren sar daiteke. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtean behin egiten du proba hori. Berariazko sarrera-proba gainditzea:

5. BERARIAZKO SARRERA PROBA

- o Sarrera probaren ezaugarriak hauek dira:

Hautagaiak oinarrizko proba bat egin beharko du, arrauneko ontzi bat (ioleta) erabiltzen dakiela erakusteko.

Ekintza hauek egingo dira:

- Ontzia astoetan jartzea eta uretan sartzea, ontziari arraunak jartzea eta ontzian sartzea.
- Ontziralekutik aldendu eta 35 metrora dagoen buiaraino arraun egitea; buiari buelta eman eta berriz ere abiapuntura itzultzea.
- Ontziralekuan atrakatzea, ontzitik ateratzea, eta ontzia bertan uztea behar bezala lotuta.

- o Oharrak:

- Berariazko proba baliozkoa izango da Espainiako Estatuan, gainditu ondorengo 18 hilabeteetan.
- Beraz, aurreko 18 hilabeteetan beste ikastaro bateko sarrera proba gainditu dutela egiaztatzen dutenek ez dute egin beharko ikastaro honetako sarrera proba.
- Goi mailako kirolariak edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen dutenek –uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat–, ez dituzte bete beharko haiei dagokien kirol modalitate edo espezialitateari dagozkion baldintza bereziak.
- Ezintasunen bat dutenen kasuan, sarrera-probako epaimahaiari aholkularitza eman dakioke, ezintasun-mailak prestakuntza aprobetxatzeko, mailari dagozkion gaitasunak eskuratzeko eta lanbidean behar bezala jarduteko aukerarik ematen ote duen aztertzeke.

6. ARLOAK BALIOZKOTZEA-KONPENTSATZEA MEREZIMENDUEN ETA BESTELAKO PRESTAKUNTZA OFIZIALEN BIDEZ

- Bloke komuneko zein berariazko blokeko arloak baliozkotu edo konpentsatu ahal izango dira, ondorengo prestakuntzak egiaztatuz gero, baldin eta ikasitako ikasgaiak konpentsatu nahi den arloarekin bat badatoz, eta ikasketa horien ikastordu kopurua hauen bera edo handiagoa bada:
 - Jarduera fisikoen eta kirolaren arloko irakaskuntza ofizialak:
 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua/lizentziatura.
 - Lehen Hezkuntzako gradua/diplomatura Gorputz Hezkuntzaren espezialitatean.
 - Goi mailako gradua Gorputz eta Kirol Ekintzen Animazioan.
 - Erdi mailako gradua natura inguruneko gorputz eta kirol ekintzen gidaritzan.
 - Erdi edo goi mailako graduak beste kirol modalitate batzuetan.
 - Beste modalitate batzuetako aldi iragankorreko prestakuntza-jarduerak, I., II. eta II. mailakoak.
 - Gorputz eta kirol jarduerarekin zerikusirik ez duten baina antzeko edukiak jorratzen dituzten bestelako irakaskuntza ofizialak.
- Goi mailako kirolariak edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen dutenek –uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat–, konpentsatzioa eskuratu ahal izango dute, teknika-, taktika- eta araudi-alderdiak jorratzen dituzten berariazko blokeko ataletan.
- Arloak baliozkotzeko/kompentsatzeko eskaera:
 - Bloke komunekoak: interesdunak eskaera egingo dio Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari. Berariazko blokekoak: interesdunak dagokion eskaera aurkeztu beharko du Kirolaren Euskal Eskolan blokea hasi baino 10 egun lehenago, gutxienez.

7. HIZKUNTZA

- **Euskara.** Euskadiko Arraun Federazioak ikastaro hau euskaraz egingo du, bi hizkuntza ofizialetan egiteko aukera izan dadin; orain arte gazteleraz antolatzen baitzuen.

8. DIPLOMA

- Prestakuntza osoa gainditzen dutenek ondorengo diploma ofiziala eskuratuko dute:
 - I. mailako arraun entrenatzailea.
- Arraunketa modalitateko irakaskuntzak hezkuntza sistemara pasatzen direnean, dagokion dekretuaren bidez, ikasleek diplomaren baliokide akademikoa eskuratu ahal izango dute, kasu honetan hau: Arraunketako Erdi Mailako Zikloaren lehenengo mailaren ziurtagiria.

9. IZEN-EMATEA

SARRERA-PROBAK, BERARIAZKO BLOKEA ETA PRAKTIKALDIA:

- o **Izena non eta nola eman:** Euskadiko Arraun Federazioan.

- o Telefonoa: 943451891
Helbide elektronikoa: arrauna@arrauna.org

Diru-sarrea ondorengo kontu-zenbakian egingo da, eta izena eta abizenak adieraziko dira:

0081 5455 82 0002104719 SABADEL

- o **Izena emateko epea:** uztailaren 12 arte

- o **Aurkeztu beharreko dokumentuak:**

- NAren fotokopia.
- Izena emateko egin beharreko ordainketaren ordainagiria (100 euro)

- o Ikasturtearen lehenengo egunean (irailaren 9an) agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Eskatzen den gutxieneko titulazio akademikoa egiaztatzen duen agiriaren fotokopia konpultsatua, edo jatorrizko agiria eta fotokopia; edo bestela, horren ordezkotza heldutasun-proba gainditua duela egiaztatzen duen agiriarena. Aurkez daitezkeen agiriak:
 - Titulu akademikoa, edo tasak ordaindu izanaren frogaria.
 - Norberaren ziurtagiri edo espediente akademiko ofiziala (ikasketak egin ziren zentroan eskatzen da).
 - Kalifikazio-liburua (eskolatze-liburua)
- Arloak baliozkotu/konpentsatu behar direnean:
 - Berariazko blokeko arloak: Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendariaren ebazpena, konpentsazioari buruzkoa.
 - Bloke komuneko arloak: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren ebazpena, baliozkotzeari buruzkoa.
- Arraun federazioko fitxaren kopia (indarrean dagoen fitxarena).

- o **Plaza-kopurua:** gehienez 30 eta gutxienez 20.

- o **Prezioa:** 750 euro (bloke komuna + berariazko blokea + praktikak)

Izena emateko garaia (uztailaren 12an)	Ikastaroa hasi aurretik (irailaren 9an)
100 euro	650 euro